



Lan deialdia: Nafarroako Bertsozale Elkarteko irakaslea

Nafarroako Bertsozale Elkartek **bertsolaritza irakasle** bat behar du, Iruñerria, Lizarraldea eta Piriniotan Hezkuntza Arautuko 20 taldetan saioak emateko. Curriculum Vitaeak eta motibazio gutunak aurkezteko epea: 2026ko urtarrilaren 30a, asteartea (barne).

Eskaintzen da:

- Lanaldi osoko kontratua. Ordutegi moldagarria.
- 2026ko otsaila hasieran hasteko.

Eginkizun nagusiak:

Nafarroako Bertsozale Elkartearen Hezkuntza Arautuko proiektua lau hilabetez, Iruñerria, Lizarraldea eta Piriniotako 11 ikastetxe ezberdinetan garatzeko irakasle baten bila ari gara, lanaldi osoz. Hauek dira langilearen funtzio nagusiak:

- Hezkuntza Arautuko *Eskolan bertso*an programa ematea 20 taldetan. Talde bakoitzean, oro har, 15 saioko programa aurreikusten da.

Eskatzen da:

- Unibertsitateko lizentziatura, diplomatura edo gradu titulua izatea.
- Bertsogintzan eskarmentua izatea; bertsolaritza eta euskal kultura ongi ezagutzea.
- Euskara maila altua izatea (EGA titulua edo balioduna).
- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.

Baloratuko da:

- Haur eta gazteekin didaktika alorrean aritu izana.
- Bertsozale Elkartearen proiektuaren eta jardunaren ezagutza.
- Izaera planifikatua, ordenatua, ekintzailea eta dinamikoa izatea.

Interesa duenak **Curriculum Vitae-a** eta **motibazio gutunak** bidali behar ditu Nafarroako Bertsozale Elkartera (nafarroa@bertsozale.eus), **2026ko urtarrilaren 30era bitarteko epean (barne)**. Informazio gehiago behar izanez gero, idatzi mezu bat helbide horretara edota deitu: (+34) 691 26 18 96.